

TXINDOKI IZAN ZIRELAKO GARA

*Nik Txindoki dut maite.
Nirea egiteko ahalegin zentzu gabean,
haitz horma tentean parabolak sartu banitu,
erraz gaingitu izango nukeen.
Garaipen faltsu bat izango zen.
Zeren nik Txindoki dut maite.*

Mendi gailurrak beti izan dira gizakiarentzat beldurgarriak, sakratuak, mito eta kondaira leku, desiratuak... Gure arbasoek beste begi eta bestelako asmoez kontenplazten zituzten mendi gailurrak, ikaraz. Antzinako greziarrek, jainkoen bizilekutzat zituzten mendiak eta euskal mitologian, pertsonaia berezian bizileku. Gaur egun, aldiz, mendi gailurren desio konpetitiboaren aroan murgilduta gaude. Hau dena, sakonki lantzen du Maurice Herzog alpinista frantsesak, "La Montaña" liburu mardulean (Editorial Labor, 1967).

Txindoki mendiak, bere itxura ederrari esker ez ditu oharkabean pasa mendeetan zehar aurrez azaldu ditudan une hauek guztiak. Gailur hotz eta beldurgarria zen Euskal Herrian bizi ziren lehen gizakientzat. Kondairez beteta, Mari jainkosak Txindoki mendi inguruetan baitzuen bizilekua. Gaur egun, gailur desiratu da milaka mendizalerentzat, baita ulergaitza den ahaleginean mendi tonterrerira iristea helburu duten kirolarientzat

ere. Eta Larraitz auzoa dugu horren lekuko. Egunero, goizean edo arratsean, norbait doa maldan gora gailurrera iristeko desioz. Oinez edo korrika, eguzkitan nahiz euritan, udan loreek gure urratsak apaintzen dituztenean edota neguan eskiak oinetan ditugula, eskalatzen, mende bal ertzetik edo parapentez hegaka bakardade osoan. Denok aurkitu dugu noizbait gure lekua Goierriko gailur eder honetan.




**Denok aurkitu dugu
noizbait gure lekua
Goierriko gailur
eder honetan**



Bonatti orratza *Ezin Asetu* bidea

Txindokiko haitz eta paretetan eskalatzeko oso inguru egokia topatu zuten eskalatzailuek orain 65 urte. 1951ko urriaren 21ean mendebaldeko ertzaren igoerarekin, ondoren eskalada bideen zerrenda luze bat izango zenari hasiera eman zioten Jose M^a Peciñak, J. Arratek eta A. Saenz de Basagoitiak eskalatzailuek. Hurrengo eskalada bidea zortzi urte eta gero heldu zen, 1959an Jose Luis Vitoriak eta Francisco Lusarretak ertzaren bidea baino askoz tenteagoa zen *Fronton* paretan *Fisura Diedro* bidea zabaldu zutenean. Urte bat beranduago, *Fronton* paretan hau ere, Alberto Caceresek eta Miguel Arrastoak pareta erdian dagoen arrakala igo zuten. Zailtasun teknikoari dago-kionez igoera historikoa eta konpromezu han-



TESTU ETA ARGAZIAK



Mikel Saez de Urabain.
(Ordizia, 1968).

Suhiltzailea ogibidez 35 urte daramatza bertako eta urrutiko paretak eskalatzen. Mundu osoko mendilerro garrantzitsuenetan ibilia (Himalaia, Karakorom, Andeak, Patagonia, Kaukaso, Alpeak, Pirinioak...) eta horietako zenbaitetan bide berriak zabalduz (Himalaian, Kunsun Kangurun Shati forever bidea ipar horman neguan eta Karakorumen Zang Brakk mendiko horman In-surgente bidea, beste batzuen artean). Halere, etxe ondoko haitz eta mendiak ditu gustuko, Aralar eta Pirinioetako mendietan bizi izan ditu bere unerik hoberenak.

Txindoki mendia


dikoa, erronka bikaina garai haietan beraien burua eskalatazaitzat zuten guztientzat. Urte berean, Paco Lusarretak eta Rodolfo Kirchek plaka gorrietan beraien izena daraman bidea zabaldu zuten. Hamar urte pasatu beharko dira Txindokiko haitzetan beste lehen igoera bat ikusteko, 1970ean hain zuzen ere. Angel Fernandezek eta Valentin Muñozek, *Txema* bidea zabaldu zuten urte hartan. 1971n Valentin Muñozek, oraingoan Iñaki Arregiren laguntzaz, *Urdaburu* bidea eskalatu zuten. Garai erromantiko haietarako paretak zituen bertikaltasuna eta zailtasuna ikusita, eskalada historikoa gertatu zen. *Amitziko haitza*, mendebal ertzaren azpian dagoen paretak, Marcelino Carmona eta Francisco Chocaroren eskutik lehen igoera ezagutu zuen 1972an, *Aiztporra* bidea izenez ezaguna. Pareta handira itzuli eta 1974ean, A. Cabezok eta J.M. Rodriguezek *Petrel* igo zuten. Urte bat beranduago, 1975ean, bere ezkerrean zabalitzen den *Huerta* bidea igo zen Jesus M^a Barandiaran eta Jose Manuel Lopezen eskutik.

Data honetan bukatzen da Txindoki mendian urrezko eskaladaren garaia. Eskalada materialaren eskasiak eta ezagutza tekniko faltak, ausardia eta abentura gogoia ekarri zituzten. Alpeetatik zetorren alpinismo iraultza antzeztu nahian edo Walter Bonatti puntako alpinista italiar ospetsuaren ibilerak, ziurrenik inspirazio iturri izango zuten. Ondorengo eskalatazailerik belaunaldia 80ko hamarkadan azalduko da. Garai horretako datuak ez daude oso garbi, eskaladak momentu "anarko" bat bizi izan baitzuen. Eskalada material eta teknikak hobekuntza nabarmena izan zuten eta bideak librean igotzea bihurtu zen jokoaren erronka nagusia, arrakalak utzi eta haitz plakak aukeratu. Espitadorearen laguntzaz behetik zabalitzen zituzten plaka hauek. 1983an, plaka gorrietan hiru bide zabaldu zituzten Gerardo Telletxeak eta Jorge Mallesek, *Gora Euskadi Aunque LLueva* izenekoak. Manu Sesmak eta Ra Gaztañagak, *Eskualido Carnero* eta *Espuelon Boinatti-Abilategi*. Urtebete be-

randuago, 1984an Alberto de Blasek, Iosu Ulaziak, Jokin Bierak, Iñigo Rodriguezek eta Jorge Mallesek, *Peter Punk* igo zuten, hau ere plaka gorrietan. 1985ean, *Fronton* paretan Rikar Otegik, Ramon Senperenak eta Manu Beriainek *Directa a Ganimes* lehen igoera burutu zuten. 1987an, *Lau Teilatu* zabaldu zuten Ra Gaztañagak, Manu Sesmak eta Iñaki Cuellarrek. Hamarkada horretako beraien hirugarren bidea izan zen. Asier Izagirre, Aitor Uson eta David Isasa hirukote tolosarrek, *Txema* paretan, *Ikusi eta Ikasi* lortu zuten, zazpigarren graduko zailtasuna Txindoki mendian txertatuz.

Bideak librean igotzea bihurtu zen jokoaren erronka nagusia, arrakalak utzi eta haitz plakak aukeratu

LARRUNARRI
TXINDOKI 1341 m



90. hamarkadan, Gipuzkoako Mendizale Federazioaren laguntzaz bide guztien ekipamendu sistematikoa burutu zen. Txindokin ezagutzen diren eskalada bide guztiak parabolaz hornitu zituzten eskalada eskola bat sortuz. Bide berri bakan batzuen lekuko ere izan zen hamarkada hau. 1991n *Eskola Kantorum* bidea zabaldu zuten Juan Lasartek eta Iosu Ulaziak. 1992an, Iñaki Zuzak *Directa Hoddkins* bidea ireki zuen. 1995ean, Josu Gutierrezek Txindokiko beste bide handi bat zabaldu zuen *Urdaburu* bidearen ondoan, *Zurruprustu* bidea hain zuzen ere. Urte bat beranduago, Karmel Leizaolak, Dani Diaz de Zeriok eta Ra Gaztañagak bi luze gehiago gehitu zizkieten *Eskola Kantorum* bideari, *Gero Gerokok* bidea. 1998an Mikel Saez de Urbainek, *Fronton* paretan eskalada artifiziala eskatzen duen *Skarlata o'Lara* bidea zabaldu zuen. Mendea bukatzeaz zegoela, 1999an *Gorrospen Taldea* bidea zabaldu zuten Karmel Leizaola eta Josetxo Azurza soka kideek.


2000. urtean, mende berria estreinatzearekin batera, aire freskoak etorri ziren Txin-

dokiko haitzetara. Eskaladaren jokoa aldatu nahi da, goi-mendiko igoeratan batik bat eskalada garbiaren alde. Eskalatzaileak Txindokiko haitzetara beraien sormen gogoaz aseztera bueltatzen dira. Zabaltzen diren bide ia guztiak, nahiz askok parabolatza batzuk eduki, friend eta fisureroen laguntza beharrezkoa izango dute seguru igo ahal izateko. Pareta berriak bilatzen dira sorkuntza hauek burutu ahal izateko. Horrela zabaldu zen *Ipar Arista* bidea edo Txindoki mendiairean iparrean kokatzen den Bonatti orratzean, *Izan Zirelako Gara* eta *Ezin Asetu* bideak Mikel Saez de Urbainek eskutik. Momentu honetan ez dago garbi eskaladarako inguru baimendua den ala ez, tamalez, debekuaren zama izan dezake inguru eder honek. *Amitzi* haitzean, eskalatzaile berdinak, *Papildo* bidea eta *Loretos* bariantea zabaldu zituen. Pareta gorrian, *Pinpilinpaua* bidea, Gontzal Avila eta Antxon Gorrotxategiren eskutik. *Petrel* paretak hiru bide berri ezagutu zituen, *Boga Boga* eta *Oroka Tx*, Iñaki Zuzak eta Josean Jauregiren bultzadari esker. *Larga Vida* bidea, berriz, Iban

eta Josema Berrecoano anaien lanaz. *Fronton* paretak beste bide libre bat ezagutu zuen, *Purple Rain*, Mikel Saez de Urbainek zabaldua. Txindokiko gailurrak ere ezagutu izan ditu bi igoera, testu hau hasteko ideia eman didaten bi igoera eder. *Puntako Haitza* izena hartu duen paretan, *Gurutzearen Azpian* eta *Laino Guztien Gainetik* bideak, Mikel Saez de Urbainek eskutik.

**Mende berria
estreinatzearekin batera,
aire freskoak etorri ziren
Txindokiko haitzetara**

Mende berri honekin batera ere, Txindoki mendiko hormek eskaladaren beste jardue- ra bat ezagutu dute, neguko eskalada hain zuzen ere. Ekaitzak gogor astintzen duenean haitz eskalada diren bide asko elurrez betetzen dira goi-mendi itxura erreala bat sortuz. Baldintza hauek egokiak izaten dira



piolet eta kranpoien laguntzaz neguko eskaladan jarduteko. *Mendebal Arista* bidea da, dudarik gabe, baldintza horietan gehien eskalatzen den bidea. Aristatik kanpo beste bide asko igo izan dira negu gorrian, estilo berezi bat sortuz.

Idatzi dudana eskalada bide, eskalatzaille eta data zerrenda luze honetan, historia apala dago, gure mendiak bezain txikiak diren eskalada kontakizunak. Orain 65 urte hasi zen eskalada Txindokiko haitzetan eta gaur egun oraindik hamarkada askoren ondoren jokaleku dugu Gipuzkoako eskalatzaille askok.

BIBLIOGRAFIA

Ascensiones y Escaladas de Guipúzcoa. Jesus Maria Rodriguez. Euskal Herriko Mendizale Elkargoa, 1979.

BLOGAK

inakizuza.blogspot.com
aralarreneskaladak.blogspot.com